EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA
*Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS
*Dirección de Desarrollo Rural y Litoral y Políticas Europeas*

Sasoikako Lanaren Arretarako 2017-2020 IV. Plan Orokorrak plana bera ezagutzera ematea eta egon litezkeen berrikuntzen berri sasoiko lana eskatzen duten nekazaritza-kanpainak hasi aurretik ematea aurreikusten du.

Horregatik, honako gai hauen gaineko informazioa ematen dugu, oso gai garrantzitsuak direla uste baitugu, bereziki 2017. urtean zure ustiategian sasoikako langileak kontratatzeko asmoa baduzu:

El IV Plan Integral de Atención al Trabajo Temporero 2017-2020 prevé la divulgación del mismo y la difusión de las novedades que hubiera antes de las campañas agrícolas que requieren trabajo temporero

Por ello, se informa sobre las siguientes cuestiones en la creencia de que son temas importantes y de máxima trascendencia si su explotación va a precisar de la contratación de personas trabajadoras temporeras en este año 2017

**HITZARMENA**

2016an, UAGAk sasoikako lanari buruzko hitzarmen kolektibo bat izenpetu zuen CCOO eta UGT sindikatuekin Araban. Hitzarmen kolektibo hori indarrean dago 2017an ere, beste hitzarmen batek ordeztu bitartean, eta erreferentziazko lan-baldintzak ezartzen ditu nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategietan nekazaritzako peoi gisa lanean dabiltzan sasoikako langileentzat.

**CONVENIO**

En el año 2016, UAGA firmó con los sindicatos CC.OO. y UGT un convenio colectivo de trabajo de temporerismo en Álava, cuya vigencia se mantiene en 2017 hasta que sea sustituido por uno nuevo.
El acuerdo establece las condiciones laborales de referencia para las personas temporeras que prestan sus servicios en las explotaciones agropecuarias como peones agrarios.

**SOLDATA-TAULA/TABLA SALARIAL**

| | |
|---|---|
| Soldata gordina ordukako lanetan/Salario bruto en trabajos por horas | **7 €/orduko/ 7 € /hora** |
| Soldata gordina mahats-bilketako destajuko lanetan/Salario bruto en trabajos de vendimia a destajo | **0.048 €/bildutako kilo bakoitzeko/ 0,048 € /kilo recogido** |
| Soldata gordina mahats-bilketan 9-15 kiloko kaxekin egindako lanetan/ Salario bruto en trabajos de vendimia en cajas de 9 a 15 k | **0,069 €/bildutako kilo bakoitzeko/ 0,069 €/kilo recogido** |
| Soldata gordina destajuko patata-lanetan/ Salario bruto en trabajos de patata a destajo | **0,020 €/bildutako kilo bakoitzeko/ 0,020 €/kilo recogido** |
| Joan-etorriko plusa, mahats-bilketako lanetan/ plus de desplazamiento en labores de vendimia | **2,50 €, pertsona eta eguneko/ 2,50 € por persona y día** |
| Gaueko lanaren plusa/ Plus de nocturnidad | **Soldata gordinaren % 25eko igoera/ Aumento de un 25% del salario bruto** |
| Nekagarritasun-, toxikotasun- eta arrisku-plusa/ Plus de toxicidad, penosidad y peligrosidad | **Soldata gordinaren % 10eko igoera/ Aumento de un 10% del salario bruto** |

Kopuru hauek behin-behinekoak dira. Horrek ez du kentzen hobekuntzak egitea, 2017ko hitzarmenak halakoak ezartzen baditu. Hala izatera, hobekuntzok arautu egin beharko dira.

Estas cifras son provisionales, sin perjuicio de las mejoras que puedan establecerse en el Convenio 2017, y que, en su caso, deberán ser regularizadas

Era berean, hauek gogorarazi behar dira:

- Mahatsa biltzeko sasoirako kontratatutako pertsonaren kontratua, beti, idatziz egin beharko da, obra edo zerbitzu jakineko modalitatean eta destajuan, eta orduko gutxieneko soldata ziurtatzen duten baldintzak zehaztu beharko dira.

Se recuerda también que

- El contrato de una persona contratada para la vendimia siempre habrá de concertarse por escrito, bajo la modalidad de obra o servicio determinado y a destajo, especificando las condiciones que garanticen el salario mínimo por hora.

Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 01 96 93 – Fax 945 01 97 02 – e-mail desrural-dec@euskadi.eus

- Enpresak, nolanahi ere, dagokion soldata eta haren ordainagiria eman beharko dizkio langileari. Kontratua amaitutakoan, kitapenean, lan egindako urte bakoitzeko 12 eguneko soldataren pareko kalte-ordaina ordainduko du.

Inola ere ez zaio ordainduko soldata langilea bera ez den beste inori.

**NEKAZARITZA-ZERBITZUETAKO ENPRESEN BIDEZ KONTRATATZEA**

Nekazaritza-ustiategiaren titularrak erabakitzen badu nekazaritza-zerbitzuetako enpresa bat kontratatzea, kontuan hartu behar du bere jardueraren zati bat ari dela azpikontratatzen. Ondorioz bera izango da enpresari nagusia, eta honako erantzukizun hauek izango ditu:

1. Kontrataturiko jarduera egiten hasi aurretik, egiaztatu behar du ea zerbitzu-enpresak ustiategirako hartu dituen langile guztiak Gizarte Segurantzan afiliatuta eta alta emanda dauden. Izan ere, betebehar hori ez betetzeak eragindako langile bakoitzeko arau-hauste astuna egitea dakar, eta horietako bakoitzagatik 626 eurotik 6.250 eurorainoko isuna ezar daiteke.

2. Egiaztatu beharko du ea zerbitzu-enpresak ordainduta dituen Gizarte Segurantzako kuotak.

3. Erantzule solidarioa izango da:

   - ✓ hurrengo 3 urteetan, zerbitzu-enpresak Gizarte Segurantzarekiko sortutako zorren aurrean.
   - ✓ hurrengo urtean zehar, zerbitzu-enpresak langileen soldatengatik sortutako zorrekiko.
   - ✓ kontratuak dirauen bitartean, lan-arriskuak prebenitzeko betebeharrekiko.

**OSTATUAK**

Enplegu emaileek sasoikako langileei eskainitako ostatua Euskal Autonomia Erkidegoko **sasoiko langileei ostatu ematera bideratutako higiezinen eta ekipamenduen erregistroan sartuta egon behar da,** azaroaren 28ko 248/2006 Dekretuaren (maiatzaren 29ko 101/2012 Dekretuaren bidez aldarazia) 7. artikuluan ezarri bezala. Dekretu horrek sasoiko langileentzako ostatuetan bete beharreko gutxieneko baldintza materialak eta funtzionalak eta haien baimentzea, erregistroa eta egiaztapena arautzen ditu.

**NEKAZARITZAKO SASOIKAKO LANARI BURUZKO INFORMAZIO-BULEGOA**

Irailaren 6tik urriaren 20a arte Guardian irekitzea aurreikusten da,Gasteizerako errepidea z.g. (UAGA eraikina).

8:30etik 14:00etara eta 15:00etatik 17:30era, astelehenetik

- En cualquier caso, la empresa está obligada a entregar a la persona trabajadora su correspondiente salario y el recibo del mismo. A la conclusión del contrato, el finiquito deberá incluir la indemnización proporcional de 12 días de salario por año de servicio.

- Bajo ningún concepto se pagará el salario a otra persona distinta al trabajador o trabajadora..

**CONTRATACIÓN A TRAVÉS DE EMPRESAS DE SERVICIOS AGRÍCOLAS**

Si el titular de la explotación agraria opta por contratar empresas de servicios agrícolas debe tener en cuenta que está subcontratando una parte de su propia actividad y, en consecuencia, será considerado empresario principal con las siguientes responsabilidades:

1. Comprobar, con carácter previo al inicio de la prestación de la actividad contratada, la afiliación y alta en la Seguridad Social de cada uno de los trabajadores que la empresa de servicios ocupe en la explotación. El incumplimiento de esta obligación constituye una infracción grave por cada uno de los trabajadores afectados, sancionable con multas entre 626 y 6.250 € cada una.

2. Comprobar que la empresa de servicios está al corriente del pago de las cuotas de la Seguridad Social.

3. Responder solidariamente:

   - ✓ de las deudas con la Seguridad Social contraidas por la empresa de servicios, durante los 3 años siguientes.
   - ✓ de las deudas salariales contraidas por la empresa con los trabajadores, durante el año siguiente.
   - ✓ de las obligaciones relativas a la prevención de riesgos laborales, durante el período de la contrata.

**ALOJAMIENTOS**

Los alojamientos facilitados por los y las empleadoras a las personas trabajadoras de temporera que contraten **deberán estar inscritos en el Registro de inmuebles y equipamientos destinados a alojar personas trabajadoras de temporada de la CAPV**, según el artículo 7 del Decreto 248/2006, de 28 de noviembre, (y su modificación Decreto 101/2012, de 29 de mayo) por el que se regulan los requisitos mínimos materiales y funcionales de los alojamientos para personal temporero, así como la autorización, registro y acreditación de los mismos.

**OFICINA DE INFORMACIÓN SOBRE TEMPORERISMO AGRÍCOLA**

Desde el 6 de septiembre hasta el 20 de octubre se prevé abrir en Laguardia, Carretera Vitoria s/n (Edificio UAGA)

Horario de 8:30h a 14:00h y de 15:00h a 17:30h de lunes a

stiralera

Doako telefonoa ere badago: 900 101 400.

Informazio guztia eta kanpainan zehar sortzen diren berrikuntzak kontsultatzeko:

www.euskadi.net/sasoikolana

IRUZURREN POSTONTZIA

Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren eta Eusko Jaurlaritzaren webguneetan dauden postontzien bitartez, lan-arloko iruzurrezko jokabideak jakinaraz daitezke, izena eman gabe, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzak azter ditzan eta, hala dagokionean, iker ditzan.

http://www.empleo.gob.es/buzonfraude/

http://www.euskadi.eus/buzon-del-fraude-laboral/web01-a2langiz/es/

Era berean, iruzurrezko jokabideen biktima diren langileek telematikoki aurkez ditzakete salaketak, Ministerioaren eta Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoen bitartez.

https://sede.empleoyseguridadsocial.gob.es/es/sede_electronica/

https://www.euskadi.eus/y22-home/es

Zuretzat interesgarria izango delakoan, adeitasunez agur

Vitoria-Gasteizen, 2017ko irailaren 1ean

viernes.

Asimismo se mantiene el teléfono gratuito 900 101 400.

En el siguiente enlace se puede consultar esta información y todas las novedades que se generen durante la campaña.

http://www.euskadi.net/trabajotemporero

**BUZÓN DEL FRAUDE**

A través de los buzones habilitados en las webs del Ministerio de Empleo y Seguridad Social y del Gobierno Vasco, pueden comunicarse, de manera anónima, conductas fraudulentas en el ámbito laboral, para que sean objeto de análisis y, en su caso, de investigación por la Inspección de Trabajo y Seguridad Social:

http://www.empleo.gob.es/buzonfraude/

http://www.euskadi.eus/buzon-del-fraude-laboral/web01-a2langiz/es/

Asimismo, los trabajadores que sean víctimas de prácticas fraudulentas pueden presentar, por vía telemática, denuncias a través de las sedes electrónicas del Ministerio y del Gobierno Vasco:

https://sede.empleoyseguridadsocial.gob.es/es/sede_electronica/

https://www.euskadi.eus/y22-home/es

En la confianza de que sea de su interés, reciba en cordial saludo

En Vitoria-Gasteiz a1 de septiembre de 2017

**Irma Basterra Ugarriza**

**Sasoiko Lanaren Erakunde Arteko Mahaiaren idazkaria/Secretaria de la Mesa Interinstitucional sobre Trabajo Temporero**